



**TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO**

hitza



Larunbata
2008-02-09

VIURTEA 1.358.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

EAEren Tolosaldeko hiru ordezkariak ezingo dira hauteskundeetan izan

TOLOSALDEA-LEITZALDEA Baltasar Garzonek EHAK eta EAE-ANV alderdien jardura eten du 3 urtez

AUTOA Ikaztegieta, Anoeta eta Villabonako alkateek ezingo dute aurkeztu, epailearen autoaren ondorioz 2

«Istilu gutxiko» Inauteriak izan dira aurten eta «oro har oso lasaiak»

TOLOSA 56 osasun laguntza eskaini ditu Gurutze Gorriak 6



Lanetariko bat. J.L. LOPEZ TOLOSA

Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak ikusgai

ALEGIA Jubilatuen tabernan daude; «lasaitasuna eta askatasuna» sentitzen du 3

Marxa Bereten Joseba eta Imanol Rojo eskiatzaileak garaile

TOLOSA Alpino Uzturrekoek 10 eta 20 kilometroko lasterketan irabazi zuten 6



Hippy z jantzita atera ziren herriko kaleetan barrena Aresoko eskolako txikiak, traktore eta guzti. N. GARZIA

ASTEBURU LUZEA AURRETIK INAUTERIETAN MURGILTZEKO

ARESO Atzo hasi ziren Inauteriak herrian eta haurrak izan ziren lehenak ospatzen; adin guztientzat izango da zer gozatua gaur eta bihar antolatu dituzten ekitaldietan 7

Espainiako senatu eta kongresurako EA Eren hautagai zerrenda ezeztuta

Politika » Baltasar Garzon epaileak emandako autoaren ondorioz, Maiz, Arrieta eta Peñagarikano ezingo dira aurkeztu.

ERREDAKZIOA

Espainiako senaturako eta kongresurako EAE-ANVren zerrendetako Tolosaldeko hiru alkateek ezingo dute hauteskundeetan aurkeztu datorren martxoaren 9an, Baltasar Garzon epaileak EAE-ANV eta EHAK alderdien jardueraren ondoren. Etenaldi hau 3 urtetarako izango da.

Alkatetzan jarraituko dute

Marixabel Arrieta (Villabona), Periko Peñagarikano (Anoeta) eta Eneritz Maiz (Ikaztegieta) dira hiru alkateak. Hala ere, «norbanako gisa eta hautetsi aukien jabe bakar gisa egiten dituzten jarduerari», hau da; Udaletan dituzten karguei eutsi ahal izango die, Garzonek hartu duen erabakia medio.

EHAKren eta EAE-ANVren jarduerara 3 urtez galaraztea erabaki du Espainiako Auzitegi Nazionalak Baltasar Garzon epaileak, «ETAn sartzeko atarian» zirela argudiatuta. «(Bi alderdiak) Batasuneko buruzagien tresna politiko bihurtu dira azken hiru urteetan, eta buruzagi horiek diruz hornitzeko eta Batsuna-ETAren helburuak betetzeko bitarteko», dio bi alderdien jarduerak eteteko plazaratu dituen autoetan. Jarduerak etetea, bi alderdi horien ekintza publiko guztiak galarazi ditu. Beraz, eta horrenbestez, martxoaren 9ko Espainiako Gorteetarako hauteskundeetan parte hartzea debekatu dio ANVri (EHAK ez da aurkeztu hauteskunde horietara).

Jarduerak eteteaz gain, bien egoitzak ixteko eta diru kontuak bahitzeko agindu du. Halere, epailearen bi autoek zehazten dute jar-

dueren eteteak ez diela eragiten EHAK edo ANVren kide diren pertsonen «norbanako gisa eta hautetsi aukien jabe bakar gisa egiten dituzten jarduerari». 259 orriko autoa plazaratu du EHAKri buruz eta 264koa ANVri buruz.

Horrez gain, Baltasar Garzonek edozein ekitaldi pribatu nahiz publikotan alderdi politiko edo talde gisa parte hartzea debekatu egin die bi alderdiei. Izaera organikoarekin edo edozein ekitaldi irekitan manifestazioak zein kontzentrazioak egiteko baimena kendu egin die. Honekin batera, hauek ezingo dira joan.

Beste deuseztapenetako bat da, ezingo dutela jarraitu kontratatuta dauzkaten zerbitzuekin nahiz haien webguneekin.

Garzonek EHAK eta EAE «Batasuneko kideen esku dagoen tresna politikoan» bihurtu dela adierazi du. Gaineratu du, «ETA-Batasunaren helburu terroristak garatzeko eta kideak mantentzeko iturri ekonomiko» dela. «Batasunaren instrumentu izate horrekin terrorismoaren muga horretan sartzea bideratu ditu». Hori gertatu ez bada denbora faltagatik izan dela azpimarratu zuen Garzonek.

EAE-ANVren prentsaurrekoa debekatu zuten

Garzon epaileak 3 urterako ANVren jardun politiko debekatu duela eta, atzo arratsaldean beren iritzia emateko asmoa zuten alderdi horretako ordezkariak; zehazki, ANVren 50 bat hautetsik. Prentsaurreko hori debekatu egin zuen, ordea, Auzitegi Nazionalak, alderdi horren ekintza publiko guztiak galarazita daudela iritzita.

EAE-ANVren alkatetzak

Tolosaldean eta Leitzaldean ondorengo herrietan du alkatetzak EAE-ANV: Leitza, Amasa-Villabona, Ikaztegieta, Anoeta, Alegia, Aduna, Irura eta Orea.

» ERREAKZIOAK

Zein da Baltasar Garzon, Auzitegi Nazionalako epailearen autoaren inguruan egiten duzun balorazioa?



«Ez da demokratikoa, ez dago zuzenbide estaturik»

Maixabel Arrieta

ESPAINIAR SENATURAKO ANV-EAE-REN ZERRENDAGAIA ETA VILLABONAKO ALKATEA

Desastre batetara goaz. Bagenekien hau etorriko zela eta iritsi da. Ez da demokratikoa. Gaur egun horrelako erabakiekin argi gertatzen da ez dagoela zuzenbide estaturik, eta giza eskubideak ez dira babestuek aurkitzen. Lotsagarria da legalitatea edo dena delakoa batzuentzat bakarrik aplikatzea eta besteentzat horrela ez izatea, horren gainetik egotea.



«Ez du laguntzen gatazkan aurrerapausuak ematen»

Inaki Irazabalbeitia

ARALAR

Itxaroten genuen arren ez da albeste ona. Ez du laguntzen Euskal Herriari bizi duen gatazkan aurrerapausuak eman daitezen, alderantziz esango nuke, atzerapausua dela. Elkartasuna agertu nahi diegu ANV-EAeri eta Euskal Herriko Alderdi Komunistari eta gure esku dagoen guztia egingo dugu herri-tar guztiak erakunde guztietan parte har dezaten.



«Bide motzera aplikatzen ari dira»

Jokin Bildarratz

EAJ

Erabaki hau Alderdi Legearen ondorioa da eta bere garaian EAJk eman zuen iritzia mantentzen du. Bestalde, gure helburua gizartearen dagoen aniztasuna erakundeetan isladatzea da. Bidea demokraziaren sakontasunarekin egon daiteke eta memento honetan aplikatzen ari diren bide motzera da. Gure ustez elkarriketarik gabe ez dago demokraziara iristerik.



«Independentismoaren aurka joan dira»

Periko Peñagarikano

ESPAINIAR KONGRESURAKO ANV-EAE-REN ZERRENDAGAIA ETA ANOETAKO ALKATEA

Erabakiaren inguruan ezin balorazio onik egin, inolako probarik gabe eta nola egin duten ikusita gainera. Beraien ikuspegitik kanpora ateratzeko egin dute, independentismoaren aurka joan dira eta inongo frogarik gabe, hemen denak balio duela erakutsiaz. Eta bien bitartean guk hemen egon beharko dugu, batere tentatu gabe, badaezpada ere.



«Alderdi Legearen ondorioa da erabakia»

Antton Karrera

EZKER BATUA

Gu ilegalizazioaren eta Alderdi Legearen aurka gaude eta erabaki hau horren ondorioa da. Arazoak, denok giza eskubideak errespetatuaz eta demokrazia erabilia gainditu daitezke. Oso larria iruditzen zaigu herri-tarrek erakundeetan aurkezteko eskubiderik ez izatea. Horren ondorioz, lehen esan bezala, ilegalizazioaren aurka gaude.



«Abagune politikoa ikusita kutsu arraro xamarra du»

Onitza Laso

EUSKO ALKARTASUNA

Honen guztiaren atzean behin eta berriz kritikatu dugun alderdi legea dago. Jende asko hauteskundeetan aurkezteko aukerarik gabe geratu da ondorioz. Egoera politikoa ere azpimarratu nahi dugu; zein memento politikotan gauden ikusita kutsu arraro xamarra dauka. Denek elkarriketa eta bide politikoen alde eginez gero, normalizazio politikoa errazagoa litzateke.



«Nahikoa lan daukat herri mailan»

Angel Yañez

PP

Herri mailan nahikoa lan daukat, beste instituzioek hartzen dituzten erabakiak epaitzen hasteko. Ez daukat beste ezer esateko.



«Epaitegien erabakia errespetatu egiten ditugu»

Oscar Renedo

PSE-EE

Justiziari hartzen dituen erabakiei errespetua diegu. Hauek erabiltzen dituzten datuak aztertuak eta baieztatutako daude. Onartu eta errespetatu egiten dugu auto hau, gainontzekoak bezala.



«Salatzeko eta mobilizatzeko ordua da»

Olatz Amiano

LAB

Jendea prest egon eta ontzat eman zezan azken asteetan landu duten errepresioaldia izan da. LAB-ek dei egiten dio euskal jendarte osoari PSOEk burutu eta PNV eta beste alderdi batzuen oniritzia daukan errepresio estrategia eta ilegalizazioak salatuta ditzan, mobilizatzeko ordua da!

«Ezinbestekoa da borroka armatua bazterteza»

Ramon Irazu

ELA

Aurreikusia zegoen, botere judicialak politikoa erakiko duen menpekotasuna ikusita. Estatuak irtenbide politikoiari muzin egiten diola dirudi. Gure jarrera berriz zehatza da: abertzaleen arteko elkarlana eta bide politikoa jorratu behar da, eta ezinbestekoa da borroka armatua bazterteza.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Adosatua.** Lurre auzoan adosatua ederra. Sukaldea, jangela, 2 terraza, lorategia, balkoia, lau loge-lau, hiru bainugela. Garaje handia eta guztiz hornitua. Interesatuak deitu honako telefono zenbakira: 609 47 89 88.

BESTELAKOAK

■ **Txakurkumeak.** Txakurkumeak

oparitzen ditugu. Interesatuak deitu ondorengo telefono zenbakira: 618 25 49 71.

LANA

■ **Zaintzaileak.** Ibarren emakume bat behar da, haur bat zaindu eta etxeko lanak egiteko. Interesaturik aurkitzen dena dei dezala ondorengo telefono zenbakira: 626 47 87 47.

Jose Luis Lopez Tolosaren margolanak daude Alegiko jubilatuen tabernan ikusgai nahiz salgai: «Lasaitasuna eta askatasuna» sentitzen du tolosarrak margotzean, eta hori, igertzen da.

Lasaitasuna islatzen dutenak

NEREA URBIZU

Paisaiak dira nagusi Alegiko jubilatuen tabernan oraingoan: artista, Jose Luis Lopez Tolosa da. Paraje ezagunak, eta argazkietatik abiatutakoak koadro guztiak, baina detailerik txikiena ere zainduta egindako selekzioaren ondoren. «Argazki guztiak ez dute balio margotzeko mementorako, nahiz eta argazki bezala ederra izan». Izan ere, parametro batzuk hartzen ditu kontuan Tolosako margolariak. Ikusleak lasaitasuna eta edertasuna aurki dezake.

Argia da, adibidez, Lopez Tolosak asko zaintzen duen zerbait, hori izanda, «sakontasuna, itzala eta bizia ematen baitzaio margolan bati: azalera lau bati bizia eman behar zaio, margolan bat leiho bat bezala izan behar da, eta ez laua. Margolan batek hitz egin behar du».

Asko landutako margolanak

Margolan batek, artea egiteko garai eta gauza guztiekin bezala, lan handia eskatzen du eta denbora behar da. «Koadro bat asko landuzen dut eta gauzak askotan aldatzen ditut: konformagaitasuna da azken batean». Mihisean margotzeko garaian, nahiz eta argazki batean begiratuta margotu «asko sortu behar da: irudi bakar batean kolore bat baino gehiago ikus ditzakezu, edo gustuko ez duzun zerbait moldatu dezakezu». Askotan, argazkiak zuri-beltzean ateratzen ditu Lopez Tolosak, itzalak eta kontrasteak hobe nabaritu ahal izateko.

Margotzea lasaitzeko

55 urte ditu Lopez Tolosak eta betidanik margotu izan du, baina 3 urte daramatza serioago margotzen: «14 urte nituenetik arte grafiakoetan lan egin dut, duela gutxi

arte. Beti izan dut nolabaiteko harremana mundu honekin, baina ordenagailurekin nekatu egin nintzen: gauza asko egin daitezke, baina azkenean konturatu nintzen beti gauza berdintsuak egiten gennituela denok».

Mihisean margotzeak «bere xarma dauka: egun batean belarria zikitzen duzu, denbora librea dudanean egiten dut, zikindu egiten du...» Erlaxatzeko balio du margotzeak, «horretarako iturria da» eta asko lagundu diola dio tolosarrak. «Artea zoragarria da, bai margotzea, baita eskultura eta arkitekturea ere».

Askatasunaren sinonimoa

«Artea askatasuna da. Margolanean zuk agintzen duzu, zu zeu zara, eta zure erabakiak eta hori oso garrantzitsua da. Denok gaude norbaiten agindupean, baina koadroa egiten dudanean ez». Askatasuna sentitzen du Lopezek margotzean, gozamen eta betetasuna.

Alegian ikus daitezkeen margolanak oleoz eginda daude, eta gehienbat, paisaiak: Tolosa, Donostia, Errezil, Pasaia... «Tolosa eta Donostia nire emaztearen eta nire herriak direlako margotu izan ditut, besterik gabe». Hilabete osoan zehar izango dira ikusgai Alegiko jubilatuen tabernan.

Askatasunaren sinonimo

Tolosako Kultur Etxean margotzen aritzen da eta egunero egiten du: «Tailerrera joaten naiz eta han dagoen taldearekin ondo moldatzeaz gain eta batak bestearekin ikasteko aukera izateaz gain, oso talde atsegina da». Erosoa da tolosarrarentzat bertan margotzea, batez ere, margotzea zikina delako eta han lekuz eta baliabideez ondo daude. «Pribilegioa da halako lekuak izatea, ez bakarrik ikastaro bezala, tailer bezala baiziki».



Tolosako ikuspegia balastradatik. J. L. LOPEZ TOLOSA



Donostiako kaia: duela 30 urte inguru ere margotu zuen, baina hau berria da. J. L. LOPEZ TOLOSA



Tolosako ikuspegiak jorratzen ditu besteen artean. Irudian, San Frantzisko etorbidea. J. L. LOPEZ TOLOSA



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri
eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldecohitz.info / Tel.: 943-65 56 95

Laburrak

Bilera martxoaren 8rako ekitaldiak antolatuko

ADUNA ● Adunan herritar-talde bat bildu da lehenengo aldiz martxoaren 8ari, Emakumeen Nazioarteko Egunari, lotuta egun edo aste horretarako programa bat eratu bat egin nahian. Horretarako, gonbidapenak banatu dituzte zuzenean herriko elkarte eta talde guztien ordezkariari eta dei egin nahi diete egun horri lotuta zerbait egin nahi duten gainerako herritar guztiei. Hori dela eta, bilera ireki bat antolatu dute hilaren 12an, asteartean, 18:30ean, Adunako liburutegian.

KMK-08ko arropa saltzeko irteerari buruzko bilera

IRURA ● Kilometroak 2008 ekitaldiraren inguruan bilera egingo dute hilaren 13an, 19:00etan, Irurako Ikastolaren areto nagusian. Bertan jorratuko den gaia arropa saltzeko irteeraren inguruan izango da eta, zehazki, martxoan eta apirileko egutegia osatuko dute.

Ezohiko bilera egingo du Udaltzako hilaren 13an

VILLABONA ● Udaltzako hilaren 13an, udaletxeko batzar aretoan eta 20:00etan, ezohiko osoko bilera egingo du. Bertan ondorengo gai-zerrenda landuko dute: aurreko bi bilkurei dagozkien aktak onartzeko proposamena (urtarrilak 16 eta 30) eta 2008ko Espainiak hauteskunde orokorretarako hauteskunde-mahaietako kideak izendatzeko zozketa.

Haur eta helduentzako filmak asteburuan

VILLABONA ● Haurrentzako zein helduentzako filmak izango dira asteburuan Villabonako Gurea aretoan. Haurren egitarauari dagokionez, aldaketa izan da, eta *Donkey Xote* filma ikusi ahaliko da euskaraz, gaur 16:00etan eta bihar 17:00etan. Sarrerak 3 euro balioko ditu. Helduei dagokionez, *Mi hermano es hijo unico* ikusi ahaliko da. Gaur 22:30ean, bihar 19:30ean eta etzi 21:30ean izango dira emaldiak. Azken horretan ikuslearen eguna izanik, sarrerak 3 euro balioko ditu.

Oharra. Atzoko HITZAn, Lanbide Heziketari buruzko informazioa dela eta, Ikaslan elkartearen baitan eskuandaldean dauden ikastetxeen zerrendan Tolosako Paper Eskola dagoela ez zen aipatu. Paper Eskola publikoa da eta Kimika eta Paper arloko zikloak eskaintzen ditu.

Larramendi Bazkunak Beterriko I. Bertso Txapelketa antolatu du

Kultura » Kanporaketak Andoainen eta Amasan izango dira eta finala Asteasun; saioak bertso-afariak izango dira.

ERREDAKZIOA

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak aurtengo otsail-martxorako Beterriko I. Bertsolari Txapelketa antolatu du, bertsolari gazteei plaza berriak eta jendaurrean jarduteko eta trebatzeko aukera eskaini eta bertsozaletasunaren erroak Beterri sakonago tinkatzeko xedez. Bi ezaugarri bereziz jantzitakoa izango da, antolatzailearen esanetan. Lehenik, 26-32 urte bitarteko gazteentzat zuzendutako txapelketa dela, eta bigarrenik bertso-lehia taldekakoa izango dela, alegia, 4 taldek parte hartuko dute txapelketan eta talde bakoitzean hiruna bertsolari.

Bertso-afari moduan

Hiru saio osatuko dute txapelketa, bi kanporaketa saio eta finala izango baitira. Saio guztiak bertso-afari gisa antolatuko dira. Kanporaketak Andoainen eta Amasan izango dira, eta finala Asteasun.

Afariagatik ordaindu beharrekoa 20 euro izango da. Afaritarako



Beterriko I. Bertso Txapelketaren kartela. HITZA

txartelak aurretik Larramendi Bazkunaren egoitzetan erosi ahal izango dira, bertso-afariak egingo diren tokian, eta Andoainen Ermaitza eta Stop liburutegietan eta Villabonako Oigigoxo okindegian.

Txartelak telefonoz ere gordearaz

litezke, 943 30 07 33 zenbakian, aurretik ordainduz gero.

Beste ezaugarri berezia epaimahaiaren egongo da. Bi epaileez gain, hirugarren epaimahaikidea entzulegoa bera izango da, aukera izango baitu botoa emateko.

» SAIOAK

ANDOAINGO KANPORAKETA

- **Eguna eta ordua.** Otsailak 15, 20:30ean
- **Lekua.** Santa Kruz elkartea.
- **Parte-hartzaileak.** Zilarriturri taldea; Ainhoa Agirreazaldegia, Iñaki Apalategi eta Iñigo Izagirre; eta Lapurtxulo taldea: Iñaki Gurrutxaga, Iñigo Manzidor *Mantxi* eta Beñat Lizaso.
- **Gai-emailea.** Jon Zaldua.

AMASAKO KANPORAKETA

- **Eguna eta ordua.** Otsailak 22, 20:30ean.
- **Lekua.** Amasako Iturrigoxoa jate-txean.
- **Parte-hartzaileak.** Otsabi taldea: Jokin Uranga, Jon Martin eta Iker Goñi; eta Ttotolondegi taldea: Nahikari Gabilondo, Iker Zubeldia eta Unai Muñoa.
- **Gai-emailea.** Iker Iriarte.

ASTEASUKO FINALA

- **Eguna eta ordua.** Martxoak 1, 20:30ean.
- **Lekua.** Asteasuko Iturriondo jate-txean.
- **Parte-hartzaileak.** Kanporaketa bakoitzetik talde bakarra sailkatuko da. Bi talde izango dira, beraz, finala.
- **Gai-emailea.** Amaia Agirre.

«Aurreikuspenak betetzen badira, txapelketa oso ona izango da»

AMAIA AGIRRE › Bertsolaria

I. GARCIA

Amaia Agirre (Villabona, 1977) Beterriko I. Bertso Txapelketaren antolakuntzan ari da.

Nolan txapelketaren antolaketan?

Beti izan dut harremana Larramendi Kultur Bazkunarekin, bertako bazkide ere banaiz, eta Jon Unanue lehendakariak esan zidan Beterri inguruan ez zela bertso txapelketarik antolatzen. Horrela, beste bertsolari gazte batzuekin hitz egiten hasi ginen eta ikusi zen 25-30 urte bitarteko bertsolari-entzate ez zegoela txapelketarik. Beterri txapelketa formal eta bakarkakoa egin beharrean, taldeko antolatzeko ideia bota zidan lagun batek eta beste zenbait bertsolari-

rekin komentatu nuen eta horrela aterazen ideia.

Nola egin da bertsolarien hautaketa?

Gipuzkoako Txapelketa bukatu berria zen bilerak egiten hasi ginean eta orduan erabaki zen zerrenda horretatik hartzea. Aurten 26 eta 31 urte artekoen artean egingo da. Gipuzkoako Txapelketan parte hartutakoa eta adin tarte horretakoa izatea hartu da kontuan eta antolakuntzak hartu du erabakia. Bertsolariak eta gai-jartzaileak elkartu ginen eta taldeak zozketa bidez egin dira eta esan behar da talde guztiak oso orekatuak tokatu direla. Denak ere maila antzekoak dira eta oso bertsolari onak dira. Aurreikuspenak betetzen badira, txapelketa oso ona izango da.

Zuk ez duzu parte hartzen bertsolari bezala.

Bertsolarietan Beterri ni bakarrik nago adin horretakoa eta parte hartzeak asko motibatzen ninduen, baina gero antolakuntzan zintzilik uzten nituen beste batzuk, hain ohituak ez zeudenak lan

horretan eta erabaki nuen ni gai-jartzen egingo nuela finalen eta bitarteko lan denetan lagunduko nuela. Gai-jartzaileak Iker Iriarte Alegikoa eta Jon Zaldua Villabonako izango dira. Bertso eskolako ikasleek lagunduko dute elkartean zerbitzen eta kartelak itxastan. Epaile lanetan Zigor Leunda eta Urtzi Bastarrika billabonatarrek izango dira.

Zergatik antolatu duzue bertso afari bezala egitea saioak?

Txapelketa batean beti saiatzen zara ahalik eta posturik onena loruzten. Bakarko lanak, ofizioak, areto bat... Seriotasun horri uko egin nahi genion. Formalismo horretatik aparte, bertsolariak beraiek ere behin taldeka daudela, erosoago egingo direla uste dugu mahai baten bueltan. Entzulegoa ere askoz gertuago sentitzen duzu, maila berdinean zaude, eta horrek bertasun berezi bat sortzen du eta komunikazioa metro batera duzu. Egia esan bertsolariaren erabaki ditugu bai datak, bai sariak eta agurra etxetik prestatuta ekartzeko

proposamena egin genien eta onartu zuten.

Ariketa bereziak prestatuko dituzue txapelketarako.

Zortziko handian eta ofiziotan hasi ohi dira txapelketak. Hemen ofiziotan hasiko dira, baina txapelketetan koplatan bakarrik Osinalden egiten da eta nik dakidala Osinalde da ere mahai baten bueltan egiten den txapelketa bakarra. Neurri eta doinu berezietan egin beharko dute ofiziotan eta hori ez dut uste beste txapelketetan egin denik. Kartela ere ez da bakarko izango, talde guztia aterako da eta ariketa berezia egin beharko dute, sekula egin ez dena. Pixkat esperimendu moduan izango da eta arrisku horrekin ere jokatzen dugu.

Entzulegoak ere bere botoa emateko aukera izango du.

Beste herrialdeetan eta sariketan horrela egiten da. Gure kasuan epaile bakoitzak boto bana izango du eta hirugarrena entzulegoarena izango da. Txartelak banatuko dira bi taldeen izenekin eta saski bat banatuko da botoa emateko.

NUTRIZIO AHOLKULARITZA

DIETA PERTSONALIZATUAK
OBESITATEA

NUTRIZIO BERREZIKETA
HELDUAK ETA HAURRAK

AMAIA ETXETXIPIA
BIOLOGA

KONDEKO ALDAPA, 5 B - 2ª ESKUBIA. TOLOSA. TEL. 679 934 888

Laburrak

Udaleku eta ludoteketan lan egiteko begiraleak

GAZTELU ● Udalak ludoteketan eta udaleku irekietan lana egiteko begiraleak kontratatuko ditu. Horretarako, hemezortzi urte betetako izan eta euskara menperatu beharko ditu interesatuak. Lan egiteko interesa edota informazioa jaso nahi dutenek udaletxera jo dezakete oinarriak eta instantzia hartzera. Izen-ematea hilaren 27ra bitartean izango da.

Ezohiko bilkura egingo dute etzi

IBARRA ● Ibarrako Udalak ezohiko osoko bilkura egingo du hilaren 11n, astelehenarekin, 13:30etik aurrera, udaletxean bertan. Bertan jorratuko dituzten gaiak honakoak dira: 2008ko martxoaren 9ko Legebiltzar eta Senaturako Hauteskunde Mahaietako kideak aukeratzea; Gipuzkoa eta Donostia Kutxarako hauteskundeetarako udalerrien elkarketa berrestea; Eusko Alkartasuneko zinegotzi Milagros Garcia de Iturrosperen kargu uztea; Eusko Alkartasunaren hautagaitza zerrendari uko egitea Vanesa Alzate, Francisco Javier Izagirre eta Juan Carrerak; eta Jon Ander Bastarrica Fernandez, Eusko Alkartasuneko udaleko zinegotzi izendatzeko espedientea bideratzea.

Bertso afarirako txartelak salgai daude

ALBIZTUR ● Hilaren 23an, larunbatarekin, Santa Marinako Segoretxe-Berri jatetxean egingo duten bertso afarirako sarrerak salgai jarri dituzte, 27 euroren truke. Bertsoetan, Zubeldia eta Peñarikano ariko dira. Interesatuak sarrera hauek jatetxean bertan, Albizturko udaletxean eta 665 746323 telefono zenbakian eskura ditzakete.

Oargi elkartearen bi irteera datozen asteburuetan

TOLOSA ● Oargi mendi elkarteak datozen bi asteburuetan bi irteera antolatu ditu. Hala, hilaren 16an eta 17an, Formigalera joango dira iraupen eskia eta eski alpinoa praktikatzera. Astebete beranduago, hilaren 23an eta 24an, berriz, Moncayo mendira igoera egingo dute.

Zine eskaintza zabala Leidor aretoan

TOLOSA ● Asteburu honetan izango da zer ikusia Leidor aretoan, bi film izango baitira. Lehenengoa, atzo estreinatutako Asterix en los juegos Olímpicos filma izango da, gaur ea bihar 17:00etatik aurrera. Bigarren filma, berriz, Fracture izango da. Gaurkoan bi saio izango dira, 19:30ean eta 22:30ean eta bihar eta etzi, astelehenarekin, saio bakarra emango dute, 20:30ean, hain zuzen ere.

Artxandako taldearen aurka ariko da Olaederra mahai tenis taldea

Kirola ● Partida zaila izango da, aurkari bizkaitarrek goigera fasean sartzeko borrokatzen baitute.

ERREDAKZIOA

Jardunaldi gogorra du aurretik Olaederra mahai tenis taldeak, Bizkaiko Artxandako taldearen

aurka jokatu beharko baitu, Lehen Mailara igotzeko borrokan dagoen taldearen aurka, hain zuzen ere.

Hala ere, gogor eutsiko diote tolosarrek, izan ere, «gogotsu» daude, azken jardunaldiko garaipenaren ostean. Hain zuzen, etxean irabazi zuten (Olaederran, Usabal Inauteriaz zirela eta itxia baitzegoen); aurkaria, berriz, Gasteizko Arauko Sansomendi izan zen.

Lehen zatian 4-1 irabazten zihotan Gasteizko taldea, baina etxekoek buelta eman eta berdinketara heldu ziren. Taldekide guztiak «bikain» aritu ziren.

Helburua, mantentzea

Une honetan helburua, Txema Armentiak azaldu duen bezala, «azken bi sailkatuen aurka hutsik ez egitea da, gisa horretara, Bigarren Mailan mantentzeko».

Charo Berra margolariaren lanak ikusgai Aranburu jauregian

ERREDAKZIOA

Charo Berra Erroren Zuhaitza: *bi-zia eta kolorea* erakusketa ikusgai dago egunotan Aranburu jauregian, 17:30etik 20:30era, asteartetik igandera.

Lan honetan zuhaitz ezberdinak biltzen ditu margolariak.

AURTEN KONTUGAZTE ENTZUNENA

ORAIN, 3.000 €⁽¹⁾ (UTB %5,06) KONTUGAZTEN SARTZEAGATIK IPOD NANO ZORAGARRI BAT EDO LOGITECH BOZGORAILUAK ZURETZAT.



Biak nahi dituzula? Bada, erraz asko. Orduan **Kontugazte** kontuan **6.000 euro⁽¹⁾** sartu behar dituzu.



IBILI BIZKOR ETA EGIN ZEURE EKARPENA KUTXAREN EDOZEIN BULEGOTAN EDO KUTXANET BIDEZ⁽²⁾. ETA GOGORATU: KONTUGAZTEREKIN, ZURE DIRUAK GEHIAGO BALIO DU.

(1) DIRUA ALDI BATERAKO GORDAILU BEREZI RATEAN EGONGO DA URTEBETEZ, ESKUDIRUTAN INTERESIK SORTU GABE. ESKAINTZA HAU 2008KO MARTXOAREN 3 ARTE BALIO DUTEN PFEZ ARAUEN MENDE DAGO. (2) BIDE HONETATIK AUKERATURIKO GAUZAK ETXERA BIDALIKO DIRA.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net



«Inauteri lasaiak izan dira oro har aurtengoak, istilu gutxirekin»

Inauteriak » Nahiz eta ohikoak baino lehenago ospatu, eguraldiari esker, «balorazio ona» egin daiteke aurtengo jaietaz.

ESTI EZEIZA

Txarangen doinuak isildu dira, kaletako apaingarriak kenduta daude, eta erdigunean autoak normaltasun osoz dabilta... Honek gutziak adierazten du Inauteriak amaitu direla eta beste urtebete itxaron beharko dela berriro ospatzeko. Oraindik goiz xamar bada ere, eta datuak erabat zehaztu gabe badaude ere balorazioak egiteko garaia da.

Inauteriak baldintzatzen dituen ezaugarri nagusietako bat, eguraldia da. Festagune nagusiak hiriko kaleak izaten dira, eta euria eginez gero, honetarako aukera gutxiago ematen du. Gainera, aurreko hila-beteetan egindako lana ez da horrenbeste erakusten. Aterkiekin kalera ateratzea ez baita inorren gustuko. Hala ere, aurtengoan ezin da inolraren, oro har, ez baitu euririk eta hotzik egin. Hori esker, karroza eta konpartsen ikusizunak ponpoxoagoak izan ziren.

Orokorrean, balorazio ona egin daiteke azken Inauteri hauetaz. Esan bezala, eguraldiak lagundu du eta ez da istilu handiegirik izan. Hala ere, jende askoren ahotan dabilen esaldia da, «beste urteetan



Zaldunita izan zen egun jendetsuena, orduan ikus zitezkeen konpartsa eta karroza gehien. I. TERRADILLOS

baino jende gutxiago izan da». Ostegunean eta igandean izan ezik, gainontzeko egunetan iaz baino jende gutxiago ikus zitezkeen kaleetan. Horren arrazoietakoa bat, aurtengo Inauteriak oso goiztiar etortzea izan liteke. Gabonak amaitu, eta hortik 25 egunetara zen Ostegun Gizena. Beraz, Eguberrietako gehiegikeriei buelta emateko denborarik ez da egon.

Ohikoa baino jende gutxiago izatearen beste arrazoietakoa bat, «azterketak» dira. Izan ere, unibertsitatean ikasten ari diren gehienak egun horietan, oraindik ere azterketetan zeuden. Eta ezin

da ahaztu, unibertsitatean ikasten ari diren gazteak bost adin taldeetakoak direla batzaz beste. Beraz, asko eta asko Inauterietara etortzeko gogoz geratu dira, baina ezin izan dute.

Zenbait datu

Udaltzaingoa, garbitzaileak eta Gurutzeko Gorrikoek Inauterian inguruko zenbait datu bildu dituzte. Alde batetik Gurutzeko Gorrikoek azal dutakoaren arabera, Inauteriak «lasaiak» izan direla esan daiteke. Denera 56 osasun laguntza eskaini behar izan dituzte sei egunetan zehar. Horien artean

gehiengoa traumatismo kasuak izan dira, 21 hain zuzen ere. Bestalde, koma etiliko kasuak gutxitu egin dira, 14ra jaitsiz. Gaurik arazo suenak Astelenitakoa eta Asteartitakoa izan ziren, liskar gehienaren orduan eman baitziren.

Garbitzaileei dagokionez, 38 aritu dira kaleak txukun mantentzeko lanean. Honetarako, 210.000 litro ur baldetan, 180.000 litro ur ezto dietan eta 880 litro desinfektatzaile. Gainera, 144.240 kilo hondakin irmo bildu dituzte. Honen ondorio gisa, goiz-goizetik garbi eta usain onarekin zeuden kaleak.

Ondorengo dekalogo



» Kale-kantotik

Joxemi Saizar

Aurtengo jai nagusiak ere pasatu dira eta balantze egiteko garaia iritsi da 2009ko otsailaren 19aren zain. Inauteri aurretik hamar agindu eman nituen eta orain ondorengo dekalogo osatu dut.

1. Jarri nituen hamar aginduetatik guztiak bete ditut, gutxi gora behera.

2. Ostegun Gizena. Egun berezia da tolosarrentzat. Egurdian ikasleen eta gazteen festarako errito inizatitakoa. Gauetan helduen eguna. Nonsartzen dira urte osoan?

3. Karroza eta konpartsak. Oso ondo beti bezala. Meritua dute. Dianako aurorok, Tunnick argazkilariarena, Lekeitioko jaiak, Garikanotarrak, Donostiako su artifizialak... Non gordeko dituzte datorren urte bitartean?

4. Musika. Gaindosia: txaranga, karrozak, tabernak, txosnak... 5. Zezenak. Festaren beste zutabeetako bat. Erakarpian handia dute.

6. Barrakak. Itsasontzia eta auto-txoekak izan omen dira arrakastatsuenak. Betikoa: garesti xamarra, ezta?

7. Txosnak. Aurtun ere egitarau oparoa osatu dute eta jendea izan dute barra-barra.

8. Garbitasuna. Goiz batzuetan usain ona eta guzti zegoen kaleetan. Ez da gutxi!

9. Iskanbilak. Gutxi izan omen dira, gehienak Astelenita gauetan kanpotarren artean, Udaltzaingoren arabera. Boteilo gutxi izan omen da. Gurutzeko Gorriak 56 asistentzia izan ditu. Ez da asko.

10. Jendea. Askok, beti bezala. Eguraldia lagun. Batez ere Zaldunita egunean eta Astelenita gauean. Aparkalekuak gainezka. Tren zerbitzu bereziak izan dira. Zergatik ez autobus zerbitzu bereziak?

P.D. Segurako gazte etorkinen etxea erre dute eta haietako lau atxilotu dituzte susmagarri direlako. Tolosako Sevendenea etxea obretan egon den bitartean Seguraren izan dira gazte horiek eta aste honetan berriz Sevendenea-raz itzuli dira. Aurretik gertatutakoak ikusita, neurri berezirik hartu al dute ardura duten erakundeek?

@ Zurea da Hitza. Sartu gure webgunean eta idatzi zure inguruneko albisteak... Horrez gain idatzitako albisteak irakurtzeko aukera ematen dizu. Honekin batera telefono zenbakia jar ezazu.

www.tolosaldeko-hitza.info

Rojo anaiak garaile Marxa Bereten

ERREDAKZIOA

Marxa Beret proba ezaguna jokatuz zuten joan den igandean Bereten. Pirineoetako eskiatzaile onetsuenak biltzen dira bertan, baina baita eskia barren-barrenean daramaten zaleak. Horietako asko Euskal Herrikoak direlarik. Hemen, Inauteri egunean, Joseba eta Imanol Rojo izan ziren garaile, 20 eta 10 kilometroko lasterketaren



Imanol eta Joseba Rojo garaile izan dira Marxa Beret-en. HITZA

irabazle. Alpino Uzturre elkarteko eskiatzaileek Marxa Bereten 29 urteko historian nekez ikus daitezkeen garaipen pare lortu zuten igandean.

Probarik proba

Alpino Uzturre Elkarteko Joseba eta Imanol Rojo Espainiako Selektzio partaideak dira duela bi urte-

tik hona. Hori dela eta, udan hasita, hileroko kontzentrazioak izan dituzte Europar zehar. Bide batez, Europako Kopako zenbait probetan parte hartu dute azken denboraldian: abenduan Formazza (Italia) eta St. Ulrich am Pillerseen (Austria) eta urtarilean Oberstdorf (Alemania) eta Klosters (Suiza).

Etxean egoteko aukera izan du-

tenean, Espainiako probetan parte hartu dute eta beti garaipena lortu dute, bere kategorian: Abenduak 22-23 Candanchun eta 30ean Mayencos Trofeoan. Urtarrilean San Joan de L'Erm en, izandako Distantzia Luzeko probetan Espainiako txapeldunak izan dira, Joseba Junior mailan eta Imanol Kadete mailan.

Hainbeste hila-betetako entrenamendua eta disziplina hain emaitza onak lortzera bideratu ditu Tolosako anaiak. «Ametz bat da eta, bide batez, gogorra» etxetik urrun ibili behar dutelako tarteluz. Urte hasierako goizean Uzturreko puntan izan genituen baina arratsalderako abiatu ziren eta hila-bete eta erdi etxeratutako ibiliko dira.

Esfortzu honek bere sari berezia izan du: Poloniako Szczyrk-Wisla herrian hilaren 21etik 28ra jokatuko diren Junior mailako Munduko Txapelketan parte hartzeko aukeratuak izango baitute tolosar eskiatzaileak.

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

...ETA ORAIN
PROBIGURRAK

Jogurta

Mahala baserria - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

Laburrak

'Promesas del Este' bihar zineman, 19:30ean

LEITZA ● Atzo David Cronenberg zuzendari kanadarraren *Promesas del Este* filma bota zuten herriko zineman eta astebururo botatzen duten filma ostiralean eta igandean eskaintzen dutenez, bihar 19:30ean eskainiko dute berriro. Filma Londresko mafia errusiarren giroa dago, eta Ingalaterran zein puntutaraino errotuta dagoen erakusten du, baita boterea lortzeko erabili daitezkeen metodo burtiaz ere.

Aurrerak Iruña taldearen aurka jokatu du bihar

LEITZA ● Bihar Aurrerak denboraldi honetako 21. partida jokatu du 16:15ean, Arkixkilen bertan, Iruña taldearen aurka. Lehenengo itzulian urriaren 14ean lehiatu ziren 2 taldeak eta leitzarrek 4-0 irabazi zieten. Aurrera saikapen nagusian 16 taldeetatik seigarren postuan doa 31 punturekin. Lehenengo Lagunak doa (42), bigarren San Cristobal (38), hirugarren Lagun Artea (36), laugarren Cantolagua (33) eta bosgarren Gares (31).

Barriola, Olazabal eta Bengoetxea binakakoan

PILOTA ● Dagoeneko hiru asteburu besterik ez dira gelditzen eskuz binakako finalaurrekoetako ligaxka hasteko. Barriolak eta Gonzalezek atzo jokatu zuten Donostian, 22:00etan. Hauek Mendizabal eta Olaizola II.aren aurka aritu ziren. Bihar, berriz, leitzar bat eta aresoar bat lehiatuko dira, Bengoetxea VI.ak eta Ruizek, Olazabal eta Lasa III.aren aurka jokatu baitute Tolosako Beotibar Pilotalekuan, 16:30ean.

Kamioi ilara luzeak autobia une batez itxi eta gero, atzo

LEITZA ● Atzo arratsaldean herrian ohikoa baino kamioi eta auto gehiago ibili ziren gora eta behera (bereziki kamioiak), eta tarteka ere ilara luzeak sortu ziren, herri sarreratik hasi (fabrikatik) eta irteeraraino. Forzaingoak azaldu duenez, «une batez» A-15a itxi behar izan zuten eta ondorioz trafikoa Uitziko gainetik bideratu zuten. «Oraingoz aipatu ez dezakegun gai batengatik itxi dugu A-15a», azaldu zuten.

Buruhandiak egiten ikasteko ikastaroan izena emateko epea zabalik

Leitza » 12-16 urte bitarteko gazteei zuzendua dago eta ikastaroa Oialde-Txokon emanen dute, larunbatero.

N. GARZIA

Koixkain elkarteak 12-16 urte bitarteko gazteentzat maskarak edo txantxoak, olentzeroaren burua eta buruhandiak egiten ikasteko ikastaroa antolatuta du.

Tailerra Oialde Txokon egingen dute, eta hilaren 16an hasiko da, datorren larunbatean, alegia. Ikastaroa larunbatero egingen dute 17:00etatik 19:00etara eta antolatzailerik hasieratik ikastarorajoa garrantzitsua dela azaldu dute. Izena emateko epea hilaren 13an amaitzen da, Gaztetxon, eta plazak mugatuak dira.

Bakoitzak 10 euro

Ikasle bakoitzak 10 euro ordaindu beharko ditu, ikastaroan zehar erabiltzen den materiala ordaindu ahal izateko.

T Telefonoak Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Germikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 675390 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320



Izar, Mikel eta Saioa herritik buelta eman baino lehen. N. GARZIA



Inoiz baino hippy gehiago bildu ziren atzo Areson. N. GARZIA



Eskolako txikiak traktorean eman zuten buelta. N. GARZIA

Hippyz jantzita hasi dituzte Inauteriak

Areso » Atzo hasi ziren Inauteriak eta eskolako haurrak izan ziren hauek estreinatzen lehenak, hippy jantzita.

NAIARA GARZIA

Zenbait herritan Inauteri ondo ajeari buelta ematen dabilzan bitartean, Areson atzo hasi ziren aurtengoak. Mikel Baraibar Aresoko alkateak azaldu duenez, «Areson beti Leitzako eta Tolosako artean egiten ditugu Inauteriak, baina aurtentzerik ez zegoenez, asteburua honetan ospatu ditugu azkenean».

Atzo Aresoko eskolakoak izan ziren haien herriko Inauteri estreinatzen lehenak, eta 15:00a aldera hippy jantzita atera ziren.

«Mozorroa denon artean erabaki dugu», dio Lierni Sagastibeltza irakasleak. «Guk proposamen batzuk egin genituen eta gero ikasleek aukeratu zuten mozorroa».

Mozorroak prestatzeko elkarlanean aritu dira, bai ikasleak, bai gurasoak. «Ikasleek kartulinazko loreak egin dituzte, eta telazko eta kartulinazko poltsak». Haurren gurasoek ere parte hartu dutela dio Lierni Sagastibeltzak, «herenegun eskolara etorri ziren, kartulinazko loreak arropan jostera».

Eskolako umeak hippy

Eskolako umeak bildu ondoren gurasoak atzetik zituztela herritik buelta egin zuten, hauetako batzuk ere hippy jantzita zihoaztelarik. Ondoren txokolatada egin zuten.

Honetaz gain, atzo jada herriko

gazteak ere Inauteriak ospatzen hasi ziren iluntzean Lagunartekoek afaria egin baitzuten Pake-Toki elkarteak.

Asteburua

Atzo hasi ziren Aresoko inauteriak eta bihar iluntzean amaituko dira. Urtero bezala herriko gazteak es-

kean ariko dira trikitixa eta panderetarekin, bai gaur baita bihar ere. Gaur baserrietan barrena ibiliko dira, bihar, aldiz, herrian.

Gaur gauean herri afaria egingen dute Lagunartekoek antolatuta eta musikarik ere ez da faltako. Gainera, bihar arratsaldean ipuin kontalari bat ere izanen da.

» EGITARUA

Otsailak 9, gaur

■ **Goizean.** Urtero bezala gaur goizean, 9:00 aldera gosaria egingen dute, eta ondoren herriko gazteak eskean aterako dira, trikitixa eta panderetarekin, herriko baserrietan barrena.

■ **18:00.** Plazan musika izanen da, soinu jole bat.

■ **Ondoren.** Herri afaria egingen

dute Lagunartekoek antolatuta. Herritar guztiak gonbidatuta daude. Afaldu ondoren musika izanen da.

Otsailak 10, bihar

■ **Goizean.** Gosaria eta ondoren eskean aterako dira, herrian.

■ **Arratsaldean.** Ipuin kontalari bat izanen da eta gero soinua plazan.



12°
7°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. EGUZKIA
BEROENA 11°
HOTZENA 7°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetaldea@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

- **Albiztur.** Hilaren 23an, Santa Marinako Segoretxe-berri jatetxean egingo den bertso afarirako sarrerak salgai daude, 27 euroen truke. Bertsotan, Zubeldia eta Peñagarikano arituko dira. Sarrerak, jatetxean bertan, Albizturko Udaltxean eta 665 74 63 23an.
- **Altzo.** Altzoko Udaltxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.
- **Tolosa.** Hilaren 16an eta 17an Formigalera iraupen eta alpino eskia praktikatzera irteera antolatatu du Oargi mendi elkarteak. Izen-ematea 637 830380an.
- **Ibarra.** *Barne barnetik*, Ibarra izenburupean Ibarrari buruzko DVDa jarri berri du salgai dago Benito Izagirre kultur etxean eta udaltxean 6 eurotan. Bertan, herriko ohitura, txoko, bizilagun, eraikin, auzo eta mendi ezberdinak ikus daitezke irudien bidez.
- **Hernalde.** Ehiza txapelketa jokatuko da Hernalden herri mailan. Lehen hiru saikatuak hilaren 16an Amasan eskualdeko kanporaketa-ra.
- **Altzo.** Udaltxean ENHA tramitatzeko aukera dago. 15 euro, 3 argazki eta errolda agiria behar dira horretarako.

Jaiak

- **San Blas.** San Blas auzoko jaiak: eguerdian haur jokoak, 12:30ean toka txapelketa auzokoentzat eta Emendek-eko bazkideentzat, 16:00etan toka txapelketa probintziala, 18:00etati 21:30era Elustondo anai-arrebak trikitilariak.
- **Areso.** Inauteriak: etxafueroa, gosaria elkarteak, herriko base-rietara joango dira moxorroz jantzita musika eta guzti, bazkaria, arratsaldean haurrak mozorrotuta plazan eta gauean gazteen mozor festa.

Zinema

- **Villabona.** *Donkey Xote* haurrentzako filma Gurea zinemaren, larunbatean 18:00etan eta igandean 17:00etan.
- **Tolosa.** *Fracture* filma asteburu honetan Leidor aretoan: gaur 19:30ean eta 22:30ean, bihar 19:30ean eta astelehenean 20:30ean.
- **Tolosa.** *Asterix en los Juegos Olimpicos* filmaren estreinaldia asteburu honetan Leidor aretoan: gaur eta bihar, 17:00etatik aurrera.



1.000 eurotan erosi daitezkeenak, Sahararako

TOLOSA ■ Lehiaketa askotan egiten den bezala, atzo, Tolosaldea Sahararekin elkarteko kideak EKO merkataritza zentzura sartu eta 1.000 euro gastatu zituzten janari eta produktu ezberdinetan. Izan ere, Ardilatxa Kultur Elkartekoei diru kopuru hau eman diete Tolosaldea Sahararekin elkartekoei, Afrikako herrialde honetara bidaltzeko produktuak erosi ahal izateko. Abendu amaieran hasi ziren eskualdean, janari eta produktu biketarekin, elkartekoak, aurtengo helburua 10.000 kilo biltzea zela-

rik. Herenegun, elkarteko kideek azaldutakoaren arabera, oraindik ez dituzte emandako guztiak zenbatu, baina 9.000 kilotik gora dituzte dagoneko. Hala, bilketa amaitu ondoren, astelehen iluntzean abiatuko da kamioia produktu hauek guztiak eramateko Saharara. Herenegun, EKO supermerkatua aukeratu zuten erosketak egiteko, bertakoek 200 kilo dilista eta hainbat konpresa kaxa oparitu baitzizkie Tolosaldea Sahararekin elkartekoei.

Erakusketa

- **Tolosa.** Charo Berra Erroren *Zuhaizta: bizia eta kolorea* pintura erakusketa dago ikusgai Aranburu Jauregian. 17:30etik 20:30era izango dira bisita egunak, jaiegun eta astelehenean izan ezik. Antolatzailea: Udak Kultur Batzordea.
- **Alegia.** Jose Luis Lopez tolosarraren margolanak daude Jubilatuaren tabernan ikusgai, asteartetik igandera bitarte, hilabete osoan

zehar. Tolosako eta Donostiako paisaiak ikus daitezke bere lanetan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

- **Tolosa.** Olarreaga, J. Korreo kalea, 2. 943 670128
- **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Manex Bengoetxea Jaular. Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu handi bat etxekoan partetik.

agurrak urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

NEURE BURUA NIK NEUK
GIDATZEKO PREST!

WWW.MONDRAGON.EDU-PREST

MONDRAGON
UN. BEZTASATEA